


BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
72 ZENBAKIA  
ZEZEILLA  
(OTSAILLA)  
1984



*Mansueto*



DIRECCION GENERAL DE MEDIOS DE  
COMUNICACION SOCIAL  
**EGUZKIA BA-DOA...**  
Entregado en... **BIAR BE ETORRIKO DA**



# GOSE GARA

*Aurrerapen aundiak agertzen dauzan gaurko mundu onetan daukagun arazorik mingarrinetariko bat gosearena da, zalantza barik.*

*Gugaz batera mundu onetan bizi diran 4.000 milloi biztanletatik, egunero 100.000 ilten dauz goseak eta 700 milloi dira bear dan lez janaritu barik bizi diranak.*

*Eta ori begien aurrean ikusten dogun gizonen aldi onetan munduan egiten diran guda-eralgiteak urteko 117 billoi pezetakoak dira.*

*Olako mundu zuzentasun-bako onetan ezin daikegu esan gutariko bakoitza be errubakoak garanik: Guk zer-jan eta zer jantzi geiegi ba'daukagu, gose diranai eta billosik dagozanai kendu dautsegulako da: guk jakintzarako ta lanbiderako erreztasuna izan ba'dogu, olako erreztasunik izan ez dabenen kontura lortu dogu elburu ori.*

*Eta zer egin daikegu arazo oneri urtenbidea emoteko?*

*Urtenbidea geure eskuan eta geure aukeran ba'lego, bear ba'da, aletin geiago egingo genduke, baiña zori txarrez ez da ori gizon bakar baten okerkeria gizadirik geienaren pekatua baiño.*

*Dana dala, urtenbide osorik aurkitu ezin ba'dogu be, geure alegiña egin bear dogu eta aletin ori bideratzeko aukera bat Gosearen Aurkako Ekiñaldia-ren eguna dogu eta egun orretan «Manos Unidas» edo «Esku Emonak» erakundeak dakarsku aukera ori.*

*Erakunde au ez da beste erri edo eleiz-erakunde baten ardurapekoa, eleiz eta erri-aldetik nortasun osoa daikan erakundea baiño.*

*Erri atzeratuak aurreratzeko diran lurgintza, osasuntza, jakintza eta aurrerapenerako eginbideak, orretan trebeak diranak eginda, onartzen dauz eta eginbide orreik aurrera ateraten diarduenai zuzenean, bitarteko barik, bialtzen dautse laguntza, Zaingo ta Zabalkunderako % 3,6 erabilten dala.*

*Il onetan, zezeillean, egiten da diru-batzerik eza-gunena, gosearen eguna ospatuz, baiña edonoz emon leike laguntza.*



Zure laguntza eldu egiten da eta zuk ori ziur jakin zeinke.

*Bear ba'da, laguntza emoten dauanak laguntza ori doan lekuan dagoanagaz artu-emonak izatea nai izango dau eta orretarako be ba-dago erakunde bat, alkartze-ekintza izenekoa: Zuk laguntzen dautsozun gizonak dauzan ingurua, amesak, oztopoak eta olakoak jakin gura ba'dozuz, «Esku emonak» erakundeak orretarako lagunduko dautzu. Bilbo'n, España'ko Bankuaren kalean, 3,2n'ean, eskoian daukazuz eta 4 16 03 68 da euren urrutizkiñaren zenbakia.*

*Banaka naiz taldeka alegindu gaitazan gure gizadiaren arazo armin oneri erantzuna emoten, al dogun neurrian.*

OLAZAR'tar Martin'ek

# ALDATU TA ALDATU!

## EPE LABURRA

Erri-agintaritzaren ezaugarria dala dirudi arduradunak eta agintarik aldatzea. Demokraziaren bidetik agintaritzara eltzen danak zaldi basatiaren bizkarrean jesarten danaren antza dauko: Gizona gaiñean jesarri orduko asten da zaldia jauzika eta ez da izaten luzarokoa gaiñean dagoanaren egon-aldia; antzera agintariak be, agintzen asi-orduko entzuten dira aurkalarari dan alderdikoan azterpenak eta ez da izaten luzarorako agintari-leku ori zaintzea.

Agintaritzak karrazkatu, gastau, egiten dau ba gizona eta orregaitik bere lekua itzi egin bear izaten dau.

## JARRAIKORRAK

Ba-dira agintari batzuk ain arin karrazkatzen ez diranak. Gure Garaikoetxea'k esaterako naikoa ondo zaintzen dau bere irudia, alderdian izan diran gorabeerak izan arren, baiña España'ra begiratuten ba'dogu, arin karrazkatu edo «eriosionatu» ziran Suarez eta Calvo Sotelo bere ondorengoa, eta bide orretatik doa baita gaurko agintari daben Felipe.

Eta ez bakarrik norkiak, politika-alderdiak eurak be izaten dabe karrazkatze ori eta agintaritzan urte batzuk igaro ezkerro, erriak aldakuntzea eskatzen dau. Gogoratu zer jazo jakon UCD'ri España'n. Onetan Euzkadi'n oraindiño bere irudia ondo zaintzen dauala esan lei E. A. J.'k.

## ONURAGARRI

Olako aldakuntzak iñoz kaltegarri izan daitekez, baiña sarritan onuragarri be izaten dira. Alderdiak pizka bat luzarago agintaritzan jarraitu arren, norkiak luzaro irautea ez da izaten onuragarri. Agintaritzan luzaro irauten dauanak bera lakorik ez dagoala uste izateko arriskua dauko. Olako zerbait jazo jakon Erroma'n Julio Zesar'eri, eta orrexegaitik il eban Bruto bere seme ordeak, bearrezkoa zala uste ebaleko.

Alderdi politikuen arduradun nagusi edo errietako Lendakari diranak beti euren lekuetan egoteak beste arrisku bat be ba-dauko: Norki barriak agertzeko oztopo izaten dirala: Beti batzuk lekuan diran artean arduradun barriak ez dira agertzen, eta alderdiak bizitasuna galtzen dau.

## ONU ON BAT

Onetan gure Unamuno'tar Migel Jaunaren esaldia datorku buruza: «Arduradun bat bear-bearreko lez agertzen danean, geiago barik kendu egin bear da» edo erderaz esanda «cuando uno se hace imprescindible, hay que prescindir de él».

Ori izan daiteke alderdi politikuetan gazteak arduratzeko ta aurrera aterateko bide bat, eta gazteak ameslari ta adoretu biurtzea, gaurko zeregiñik aundienetariko bat dala esan bear.

## BETI AURRERA

Laster da gure auteskundea. Beteko al dira erriaren autarkietan daukaguzan itxaropen aundiak. Aldatu bear dana aldatu eta jarraitu bear dauanak jarraitu, Euzkadi bere askatasun-bidean aurrera doa.

# ADITZA

## EDIN ETA EKIN

\**Edinek* eta *ekin*-ek ideko jokoak daukiezala jirudik, baiña esanguraz eta jatorriz oso bestelakoak dozak.

— (*Aitari joan gakiozan*) ederto esanda jagok.

— (*Lanari gakiozan*) be bai. Baiña leenengo *gakiozan* eta bigarren *gakiozan* antzekoak be ez dozak. Leenengo *gakiozan* \**edin* laguntzaillearena dok, eta bigarrena, ostera, *ekin* aditz trinkoaren joko.

Leen-leen *ekin* aditza jokatu egiten zoan.

— *Gakiozan aurrera*, sigamos adelante (Mogel).

— *Akio beti*, dedícate a ello siempre.

— *Ethor nadin artean, akio irakurtzeari* (Lizarraga).

Etxoagu, ondorenez, \**edin* aditz laguntzaillearen eta *ekin* aditz trinkoaren jokoak naastau bear.

Nonork esan egin jok, esan, leen-aldietan \**edin* aditza laguntzaille baiño zerbait geiago izan zala.

— Eta egiztatu be egin ete jok?

— Gogoia bai egiztatzeko, baiña agergarririk etxok bape ganorazkorik ekarri. Eta esaten nindoiana: badakik zer ekarri dauan bere eritxiaren eusgarri? Ba, neuk leentxo aitatu dodan «akio», «gakiozan» eta onelango beste joko batzuk, eta danak *ekin* aditzarenak. Inñoren barrutiko egurrez eta zurez gura izan jok bere etxea jaso, antza. Eta ori ezin egin.

### URTEN DOT/URTEN NAZ, IGO DOT/IGO NAZ,

Euskeraz aditz igarokaria eta igaro-eziña daukaguzana gauza jakiña dok. Noz-edo-noz, baiña, aditza esanguraz igaro-eziña izan arren, jokatu, igarokaria balitzok lez jokutzen dok. *Urten* eta *igon* aditzak, esate baterako.

Erriak *urten dot*, *igon neban* esango jok. Idazle batzuk be onantxe idatziko joek. Beste batzuk, ostera, *urten naz*, *igon zan* idazten joek.

Zelan esan bear genduken?

Azkue-ren berbak aitatu bakarrik egingo joat: «A nadie aconsejaría se valiese del auxiliar intransiti-

vo contra todos los que hablan el B, sin antes haber llegado a la evidencia de que no es tal su estructura» (Iztegi Aundia, *urten* berbea).

Orrelango gorabeerak izkuntza guztietan izaten dirala esango ñeukek. Latiñez be bazira «verbos deponentes» eritxenak, jokatu «pasiva»-n egin eta esanguraz «activa»koak ziranak. Ainbat eta ainbat aditz.

### ORI EZIN DA ESAN/ORI EZIN LEI ESAN

Entzuten dodan baxotxean urduri eta artega ipinten nauan erderakada zantarra oneetarikoa dok:

— *Ori ezin da esan.*

— *Ezin dogu emen berbarik egin.*

— *Ezin da olakorik egin.*

— *Ezin naz gaur Gernikara joan.* Eta abar.

Ori ez dok euskera.

Benetako euskera jatorra, gure gurasoakandik jatorkuna beste au dok:

— *Ori ezin lei (leiteke, daiteke) esan.*

— *Ezin daikegu (geinke) emen berbarik egin.*

— *Ezin lei (leiteke, daiteke) olakorik egin.*

— *Ezin naiteke gaur Gernikara joan.* Eta abar.

Zuok, idazleok, batez be, zeuon buruak aundizat daukazuezanok eta erriaren aurrean gidari agertzen zarienok, orrelango erderakada nabarmenak zeuon idaztietan erabiltea ez da parkagarri!!

— *Ezin dot lorik egin* esatea gauza bat dok, eta.

— *Ezin daiket (neinke) lorik egin* esatea beste bat. Euskaldun-euskaldun danak beingoan artzen jok esaldi bion artean dan alde.

— *Itsu batek ezin jok ikusi*, ikusmenik ez daukalako.

*Mutiko onek pelikula ori ezin jok ikusi esatea*, alan be, mutiko orrek ikusmena badaukan ezkerok, elitzatekek euskera jatorra izango. *Mutiko orrek pelikula ori ezin lleikek ikusi* esatea askoz obeto lleokek euskeraz.

PUXANA'k

## TXAKUR ZURRA

Jokolari amorratua zan gizon a. Gabero-gabero joaten zan erriko joko-etxera txakurra lagun eballa.

Jokoa zala-ta ez zala etxea ondatuta eukan.

Bere ondasunak lurra jota. Bere emazteak eta danak aserre egitsoen ekandu txarra zala-ta itxi egiala esanaz.

Alperrik Griñak geiago egitsoen. Gabero joko-etxera.

Txakurrik gabe ikusi eban bein

bere adiskide batek eta ba-diñotso:

—I, non dok txakurra? Zer egin dok beragaz? Len laguntzat ekartzen uan beti.

—Alantxe dok. Baiña aiko: azkenekoz lagundu iaustanean narrua bero-bero egin jautso-en bai ta orain sartu gura be atxok etxe onetan. Ateraño laguntzen iaustak eta gero etxera joaten dok.

—Ba... adiskide egia diñoskat: ire txakurra i baiño zurragoa dok.

Ederrak artzen dozak ik gabero-gabero ta alan be etxe au betiko itxi-bearrean gogotsuago etortzen az. Eure txakurraren bidea iarraitu egik. Obe iretzat eta obe ire etxe koentzat.

Esan ete leikeoe beste onenbeste gaurko ainbat eta ainbat iokolariri?

Iokoaren ondorea beti be ona ez. Atsekabeak, negarra, gosea. Zorrak, zer esana.

Txakurrak egin ebana egin obe.

## OKELEA TXAKURRARI

Garizumako bariku bat zan.

Edari-etxe baten sartu zan gizon bat bazkaltzeko asmoz. Txakur eder bat eroian beragaz.

Mai baten jarri zan txakurra bere alboan zalarik. Jende asko bere inguruan. Oneik be elburu bardiña eben: bazkaldu.

Okelarik ezin jan zeitekeala-ta arraiña eskatu eban gure gizonak. Bapo! Ederto! —esan eban batek au ikustean—. Geiago egongo dok guretzat.

Olako txotxolo asko ondo baiño obeto etorriko iakuzak. Ollasko ta pernil geiago iango ioguk.

Txaloak jota ba-diño gizonak: Zu gazte: okelea niri be. Ekarri okelea.

—Baiña zelan ba? Ain laster aldatu dozi zeure iritxia? Gatzik ez al dautzu egingo gero? Ta zer esango ete dautzue pralleak eta abadeak autortzen zareanean?

Kontuz gero zer dagizun. Penitentzi aundiren bat ezarriko dautzue.

Txitik be ez berak. Ixilik. Okelea ekarri eutsonean txakurrari iaurti eutsan esanaz: artu egik LAUTXU. Jan egik. Ik arimarik ez daukak salbatzeko bai ta okelea itxi-bearrik be ez daukak. Jan Lautxu. Jan.

Ikasbide ederra emon eutsen. Gogoan euki begie gaurko ainbeste arroputz kirtenek.

GOIRIA

## EUTSI BIZIARI

*Nun dago osasuna  
nun dagoz indarrak  
nun dago gaztetasun  
nun dagoz santzoak?  
Gazte aroan dira  
dan danak ugari,  
zartzaroan ostera  
eurak oso urri.*

*Negu txorien antza  
gutziz gutxituriz.  
Eder da gasterasun  
bizi udabarri*

*gure egun guztitan  
atsegin pozgarri.  
Zaindu gaztetasuna,  
zaindu poztasuna,  
loratu urteetan  
bai alaitasuna.*

*Jaungoiko Jaunak diño  
edesti deunean  
otseindu Goiko Jauna  
Alaitasunean.  
Bai al da biotzean  
gazte izan beti*

*albidea daukagu  
egin geinke ori.  
Bizi izpirik ba da  
gure odolean  
berak agindu daila  
izate guztian.*

*Ezelan jokatu  
gure ezpanetaik  
barrea ez kendu.  
Naiz izan urtetsua,  
naiz egon gaixorik,  
bizi izpitxu ori*

*guregan nausirik.  
Estaldu zure miñak  
adorez jokatu,  
izan arren urtetsu  
zar gazte agertu.  
Ba dira ortik zear  
zar irribarretsu  
orreik egiten dabe  
erria alaitu.  
Zu bere izan olan  
etxe ta kanpoan  
ez zara ez ostopo  
zagozan lekuan.*

# SANTU EUSKALDUNAK

Gure euskalerriko santu eta doatsuak ezagutzen doguz?

Geiegi ez, beintzat.

Euskal liturji liburuek 16 santu eta 9 doatsu euskotar dakaz bere lerroetan. Bakotxaren bizitza laburrean jakitea, bai norberarentzat baita euskal erriarentzat, onuragarri litzakela uste dot.

OTSAILAK 6

## IGOKUNDEKO MARTIN LOINAZ'TAR MARTIRI SANTUA

1549 urtean eldu zan Japonia'ra leenengo mixiolari kristiñaua: Xabier'tar Frantzisko, napar euskalduna...

50 urte geroago Japonia'ko kristiñauak 200.000 inguru ziran...

Baiña, 1596 urtean Taikosama Enperadoreak ekaitz gogorra sortu eban Kristo'ren jarraitzaileen aurka.

Mixiolari asko espetxeratuak izan ziran, eta beste asko kristiñau zintzoen etxeetan gorde bear euren bizitzak salbatzeko.

Garai onetan etorri zan Filipinas'tik Japonia'ra Loinaz'tar Martin, frantziskotarra, Jesukristoren ebanjelioa zabaltzeko gogo biziz.

Baiña urte bete barru, Taikosama'ren gudariak arrapatu, eta Nagasaki'ko urira eroan eben lotuta, eta an bertako menditxo baten gaillurrean beste 25 martiriekin batera, gurutzean josita, bere odol Kristoren alde emon eban.

Bertako testigu batek esaten dausku salmoak kanta-kantari joan zala bide guztian eriotzara,

30 urteko euskal martiri gaztea... Frai Martin non jaio ete zan? Beasain'en ala Bergara'n? Or dabiz erri bi orreik aspalditik eztabaidan... Baiña santuen benetako aberria —baita geurea be— Jaungoikoaren erreiñua da, betiko zeru zorionsua.

OTSAILAK 12

## ERKITZIA'TAR DOMINGO eta AOZARAZA'TAR MIKEL DOATSUAK

Taikosama il zanean, ekaitza apur bat baretu zan, eta Japonia'ko kristiñauak asko ugaritu ziran... 600.000 baiño geiago.

Baiña 1614 urtean pertsekuziño gogorra eta luzea asi zan, 200 urte iraungo ebana... Eleizak erre, mixiolariak Japonia'tik kanpora bialdu, eta bertako kristiñauak indarkeriz eta bildurrez fedea ukatzera beartu gura izan ebezan.

1622 urtean merkatari jantzita Frai Erkizia, domingotarra, Japonia'ra ixillean sartu zan, beste 6 fraile lagunekin batera.

11 urte emon ebazan Ebanjelioa zabaltzen Japonia'ko lurraldeetan, egunez mendi zuloetan gordeta, eta gauz kristiñauak fedean indartzen.

Baiña azkenez, Nagasaki'n arrapatu eben, eta ikaragarritzko martiri latza emonez, fedea ukatzera beartu nai izan eben.

Urka-abeen buruz beera oiñetatik zintzilik jarri eben, eta lurrean egindako zuloan gorputza garraiño sartuz, arriak gaiñera botata, ito egin eben.

30 ordu bizirik iraun eban, fedean sendo, Errexil'dar martiri doatsuak.

1632 urtea zan, eta 36 urte zituan.

## AOZARAZA'TAR MIKEL DOATSUA

Ildako mixiolarien utsunea betetzeko mixiolari barriak bear ziran Japonia'n.

Beste mixiolari askoren artean, Oñati'ko dominikar gazte bat joan zan ara, martiritza lortzeko egarri biziz.

Ondo ezkutaturik joan arren, Japonia'ra sartuaz batera arrapatu, eta ikaragarritzko martiritza latza emon eutsoen.

Agoz-gora ipiñi, eta ura edan eraso ia itotzeraiño, eta gero golpeka bota eraso odolaz naastuta. Gero ur-putzu batera buruz-beera sartu eben, arnasarik ezin artuz... Baita azkazal artean orratzak sartu be, eta abar... Gure euskal martiri gazteak miñ-artean, bere borroai, txantxetan, barrez berba egiteko be, ba eukan umore onik.

Azkenean, 1637 urtean, burua ebagita, bere gogoa zerurantz zuzenean egon zan, martirien koro ederra artzera... 39 urte zituan.

*(Jarraituko dau)*

GOIKOETXEA'TAR IÑAKI

## II

# KARLISTEN GUDEA

## AMOREBIETAKO ITUNBENA

*Lenago esan bear genduana orain esango dogu zer jaso yakon Bayona'n Bizkai'ko Guda-Aldundegiari, Erregea'gana eldu zanean oneri jakinerazoteko bere jokabidea. Erregea'ren ondora joan zireanak bere ontasun ta onoimenetan uste ona euken baita be euren arazo auzibidearen zuzentasunean. Eta euren taldeko albistarien jokabide txarra ikusi arren, ez eben galdu ezertxuz be itxaropena Erregeagan, egiazko Erregea Jainko ta izadiaren legeai menperaturik dagoala baekien-eta; eurak esana geienik, berariz zor baeutsen, berak, errege lez, eurokaz zuzentasuna agertu bear ebala.*

*Uste on onez Prantzi'ra ziran, eta ainbeste guzur euron aurka zabaldu zirala jakinda be, ain andia zan zaldun gizon arein begirunea, ixil-ixillik egozan, erregearen aurrean euren atzalpen ta argitasunez burua garbitu arte.*

*On Karlos'en bizitokia arakatu ta jakinda gero, al bait ariñen entzumen, adiera eskatu eben. Erago ta esamesa guzurak egia illundu leukie ala? Zoritarrez bai batzuetan, zati baterako beintzat.*

*Ori jazo zan emen.*

*Samintasun, ustekabe ta arritasunez ordezkariak ezin leitekezela eldu Erregearen ondora jakin eben. Bein eta barriro eskatu arren, ez eben lortu erantzunik edo baimenik erregeari berba egiteko. Bizkai'ko Guda-Aldundegikoak entzumenik ezin lortuta Bayona'tik Bizkai'ran biurtu.*

*On Karlos'ek erritarren esamesak zurtasun gixiz sinistu ebazan eta ez eutsen entzun gura orduan zuzendariai.*

*Agirian dago orretan ez ebela ondo egin; politika eraz bide okerra artu ta zuzentasun ezaren errudun agertu zan.*

*Erri aginte eritxi itsuak salatu zituan saltzaille be entzutentsu gizon oneik Dorregaray, El'ºo, Mendi-ri, Pérula. Oneik eurok be, bein baiño geiagoz, eskuak lotuta geratu ziran baita euren agintaritzan ezin ezer egiñik.*

*Bizkai'ko Guda-Aldundegi'ko batzuk Bayona bizilekutat artu eben. Ara joan-etorriak egin zituena gantik egiztuten eben lendik jakin ebena, eurak Amorebietan egiñikoa goienetan (andikien artean) etzala onartuten bear zan beste ango egin-tzaren arerioak egia gustiz illundu eiteala lortu ebalako.*

*Augaitik ekin eben guzurak ezeresten egiñalean an jaso zanaren egi-egia Erregearen entzumen-nera eldu zitean.*

*Lortu eben zerbait. On Antonio Arguinzoniz'ek, Bizkaia'n bere etxean egoala, Bayona'tik Zemendi'ren 2'gn. bialduriko eskutitz bat artu eban inotsala: Gure azaroa itxaroten zan baiño obeto aurkezten yaku...» Arginoniz'ek ezeutson emon erantzunik eskutitz oneri agirian beintzat eztago, orioztale edo zirri-borrarik ezalako agertuten.*

*29'gn. Bayona bertatik lagun beraren beste esku-titz bat elduyen yakon inotsola: «Ondoren zorion onetarako laguntza euki dogu, dakigun lurraldeko aldatze gaiñera, gure arteko lagun J. L. de A. D. V. G.'ak emon dituen oinkadak, orrexetarako Madrid'etik etorri diranak...» Edestilari Arguinzoniz'ek On Antonio'ren semeak diño: «Arazo onetan inoiz ondo geratuko ez dana Velasco zoritxarreko gixajoa izango da, Amorebietako'en aurka guzur iraiñ gaiztoak esan ta barrizten, baiña alper ta nagi bere Erregearen aginduak beteten».*

LETONA'k

# “MAKILLEN EGUNAK”

Onelako liburuak irakurtzen diranean, ogei ta amaseiko guda latza gure begietara erakartzen da, bere garratzasun eta mingostasun osoz. Euskal Errian borroka arek euki eban kondaira, bere protagonista baten bidez erakusten jaku emen. Gañera, bestaldetik be, gerrako kronika ez da izan ain ugaria euskal idazleen artean. Kasu askotan bere erdian murgildurik egon arren, idazle euskaldunak, gerra osteko negu baltzan oso gitxi idatzi eben (edo aal izan) euskeraz eta gai oni buruz. Auspoak oraintsu egindako iru liburuxkak izan ezik, argitalpen urria dogu asunto onetan geure izkuntzaren aldetik.

Orregaitik doi-doi datorku Zubikarainen liburua. Eta liburua bera irakurtzerakoan laster igarten da Agustiñek daukan idazteko tankera berezia: laburra eta ariña, zertzeladaz josia, Bizkai kostaldeko euskera kresaldun eta zolia. Irakurtzeko gozoa eta atsegiña. Batez be, alkarrizketaren aldetik. Ez dot uste teknika onetan euskal letretan Zubikaraik dauan maisutasun aiña erakutsi danik. Agustiñen alkarrizketa zeatza da, berba gitxikoa, erreallitatean euskaldunok erabiltzen dogunaren ispillu egiazkoa. Kontakizunak, alkarrizketak eta poemak be nastuten dira liburu onetan. Esaterako azken onein artean guztiz unki-garria da, «Otazko Kurutzea» Kapituluaren dagerrena, gudan ildako lagun bati eskeiña:

«Ez dakit  
zuri  
ala  
gorri  
ziñan.»

Berba onekin Agustiñek trajedia aren mamia adierazten dauskulakoan nago. Gerraren eza, indarkeriaren deusa, billuzik dagoz emen.

Baiña goazen aurrera. Erderaz azken aldiotan naiko landuak izan diran «Crónicas de guerra» edo «Gerrako oroitzapenak» jeneroan sartuko neuke li-

buru au eskubide osoz. Eta bai edukiñaren aldetik eta bai be idazleak gerra denboran eukitako zeregiñaren aldetik. Izan be, Zubikarai, gerra denboran, berak aitaturten dauskunez, euskera utsaz iñoiz egin dan egunkariaren idazkaria izan zan. «EGUNA» eukan izena. Leio berezi orretatik, aparteko bordatxetik lez aukera andia euki eban Agustiñek orduko gertaerak ikustatzeko eta aztertzeko.

Eta aiñ zuzen be liburuaren orrialdeetatik gerrako ekintzak igaroten ikusten doguz, pelikula baten antzera: Ondarroako urteera, Bilborako bide arriskutsua, bertako berra, «Egunaren sorketa, Durango, Gernika, Burdiñazko gerria, Bilbo uriaren galera eta abar luze bat alkartzen dira idatzi onetan; bertan ibilli ez giñanontzat ainbeste bider entzun eta ikusi doguzan bazkalondoko kontuak eta erretratoak egia biurtzen dira emen, gorpuzten dira.

Bereziki, azpimarratuko neuke idazleak igeska datorren amuma euskaldun bategaz dauan topaketa. Irakurri dagun:

«Nora zoaz amuma, nora? deitu neutson negarri eutsi ezinda, benetako errukiz».

Bizi bizirik sentiduten dau irakurleak biotzaren zirrara. Eta Konturatu be, orduko euskaldunak (idazle barruan dala) ibillitako bide arantzatsuz. Idazleak bere gerra kontaten dausku eta liburuan zear guda ori euskaldun guztiona izan zala gero eta geiago ikusten dogu.

Berba batez esateko, Zubikaraik bere tankera bereziaz eta liburu borobil bat lortuaz, gure istoria ziran eta gaur be askotan eta zoritxarrez gure istoria diran gerrako gertakizun latzak, gogora arazo dauskuz, itxaropenari be bide barriak zabaltzen, etorkizun obeago baten jarri gaitzean, baiña aurreko irakas-kuntzak aztu barik.

A. URRUTIA



# LARRABETZU

Badira Euzkadi'n erriak biztanlez txikerrak izanarren euren edesti jakingarria dabenak eta, orretariko bat dogu Larrabetzu edo Larrabetzua, gazteleraz «abundante en praderas bajas» esan nai dauana. Ogei aneinek, kilometro, lautu ditu eta iru anei inguru bizitanle, geien bat basetxe zabal ederretan tinkatuta, nai-ta azken-aldiko urteetan uri inguruan be ainbat etxe-barri egin ondoren pizkat moltzotuago egin dan.

Lezama, Galdakano, Zornotza, Morga eta Gamiz bitartean aurkitzen da eta, beraz, erri orreikaz mugatuta.

Euskal-erri ori antziñakoa ba'da be 1376'garren urtera arte ez eukan erritasunik eta, aldi orretan Bizkai'ko Jaun zan on Jon, Juan'ek emon eutsan erritasuna edo uritasuna, Berresonaga'ko (edo Barrazunaga, onetara bere ikusi dogulako idatzita) auzunen sorturik gaur-egunera arte ezagutzen dogun uria. Orduko uri danak edo geienak lez etxaide estu ta moltzotutako etxe-mordua, beren eleiza eder ta guzti. Andra Mari'n omezez bera.

Ordurako, baiña, ba-eguan Larrabetzu'n txadona, bear ba'da orduzetik asita Goikoelexia izenez ezagutzen doguna, bada, ordurarte ziurki Aretxabala'ko Andra Mari lez ezagutuko zan, aldi ontan ikusiten dogun eleiza zaar eta bera dagon lekuan bertan lenago izan zan eleiza erromanikua, bera-ge indako eleiza barria egin ondoren Goikoelexa lez ezagutzeko.

Zerbait esan dogunez, gaurko eleiza zaarra dagon lekuan bertan



*Aretxabala - Goikoetxea.*

eleizatxu erromaniku bat egon eizan, bear ba'da Galdakano'ko Ganguren'en egonzan Mariñe, Zumetza'ko Mikel deuna, Bakio'ko Pelai deuna, Kolutza'ko Erroke deuna ta abar sortu ziran aldikua, baiña, bera eratsitakoan oraingoa jaso ei-eben areen askogaz, bertako marrazkitutako arri batzuk adieraziten dauskuenez.

Orain urte batzuk il zan aipatu dogun txadon zaar orren jable egon zan Zorroza apaiz zaartzua, beren abizenalako Zorrotza, izakeraz da jakituriz eta, berak azaldu euskuzan jakingarri dira zertzelada asko, eleiza zaar orretaztik gaiñera bere.

Apaiz jakintsu orrek adierazo euskunez, Uri'ko eleiza, txadona, egiñarte Goikoelexa ta beren inguruak Aretxabala edo Aretx-zabala izenez ezagutuko zirala, naita idatzita ezin dan aurkitu, orduko euzkotar askok ez ekielako idaz-

ten eta bakienak ez eutsoelako garrantzirik emoten idatziteari, baiña, aboz-abo gaur arte dakigun lez, eleiza zaarrera eldu baiño berrogeita amar edo irurogei anei neurkin lenago aurkintzen da arrizko gurutze ertitsu apain bat eta, leku orretan berean egon bear zan eundak urteetako aretx mardul zabala eta, aretx orren magalpean bilduten ei-ziran gero Gernikara joango ziran Bizkai'ko ordezkariak edo, bertan aretxpean bildu ta urren eleiz zaarrean Bizkaia jaurtuteko onartuko ziran la-giak zin egiteko.

Aipatu dogun arrizko gurutze apain orrek, alde baten Ama Neskutza'ren irudia dauko, beren umetxu billuzia besoartean dauala eta, besteko aldean, beste irudi ertitsuak dituala. 1524'garren urtean ipiñia da gurutze ori.

Bear ba'da ez dabe jakingo zergaitik, baiña, badira Larrabetzu'n adiñekoak, urteetan goratukoak Aretxabala izena egiztatutzen dabenak, bada, Larrabetzu'tik Morga'ra bitartean igaro bear dan mendi-lepoari, Goikoeleixa'tik urren aurkitzen da mendi-lepoa'ri, Aretxabala-gana esaten dautsoe, gazteak Gana bakarrik esaten ba'dautsoe bere.

Eleiza zaar aurrean bada beste oroigallu apain bat bere, baiña, askotaz oraingoa da bera; jaiotzaz Larrabetzu'ko seme zan Jauregi'tar Atanasi Peru'n (Amerika'n) Gotzain izandakoaren oroigarriz jasotakua.

Irakurle euzkotarra, ezagutu daigun geure Aberria, obeto maitatzeko eta goratzeko.

ALTUNA'tarJosu

# JOSEBA MIRENA

## BILBAO

Ez bizi, irakurle, gizona ezagutzen dozulakoan. Ez da olan. Leza sakona dozu gizona, barru ta kanpo; leza ao-baltza, itxura laster aldatzen dakiana. Armiña, nire jaiot-etxetik ur-samar dagoan koba zuloa da. Lekeitio'ra joateko andik igaro bear izaten genduan umetan; bildurra sartzen euskun, ezkutuz beterik iduritzen genduala. Umetxoen idurimena!

Misterioz betea da umetxo jaio-barria. Zer izango ete jaku biar edo etzi? Argia, motela, osasuntsua ala gexotia? Ez dakigu. Ba leiteke artista bat, olerkari bat, musiku bat naiz arotz bat izatea... Nok jakin zer, ostera? Geroak argi-erazoko dausku.

Umetxo bat jaio zan Bilbo'n. 1964'ko iraillaren 22'an; beronen gurasoak: Ebaristo Bilbao ta Miren Artetxe; anai-arrebak: Miren eta Gotzon; aitita Euljio Artetxe, Gernika'ko euskal olerkaria. Etzan umetxo au luzaro bizi izan, Bilbo'n bertan il zan, ba, 1981'ko azaroaren 23'an, amazazpi urte egin-berri zituala. Kimu samurra, Jaunak, aingeru taldea ugaritzeko, ebagitakoa.

Ames legez jakuz gaztetako urteak. Zer emongo, zer izango urteetan zear Joseba? Il zanean, ain zan gazte! Gexo txar batek eten eutsan bizitz-aria. Agur egin eutsan munduari, agur bere guraso ta anai-arrebai. Ixil-ixillik joan zan, aingeru egalari.

Gorako bidea artu ebanean, emen beean, zotinka geratu ziran gurasoak, anai-arrebak eta ikas-lagunak, galpen baliotsu batek biotz-zaurituta. Onako une ta monentuak ezin izaten doguz aztu. Leun-samurra izan zan Joseba'ren eriotza, azken-agurra egitea. Azaroaren 23'an il zan eta aren amak, Miren Artetxe'k, abenduaren 8'an au idazten eustan: «Sarritan egon naz idazteko Josebatxu'ren egoeraz zu jakitun ipiñi naita; baiña ez dot egin orain arte. Josebatxu —zurretat Joseba Bilbao Artetxe— poesitxuren batzuk bialdu eutsuzana, zeruan dago zemendiaren 23'ren goizeko zortziretatik; zeruan dagoala diñot bere bizitzan naikoa pozik bizi izan zalako, kurutzean Jesus'egaz ondo batuta egon zalako, bere gexoa zala-ta.

«Artrosia —txoko-miña— gero ta aziago joiana eukan, eta olan bere gorpuztxoa egunetik egunera makalago egiñaz. Aspaldiko urteetan iñoren laguntza bear izan dau bere zeregin guztiak egiteko; len eskutxuekin idatzi naiz jan egiten eban; aspaldian sei-



*Argia amatatzen doa  
gaisorik dago*

*Eta ezin da ezer egin.*

*Zer egin  
momentu estu onetan?*

*Izar bat amatau da pozetan;  
estutasunaren ondoren  
poza dator.*

*Baña estutasuna zer ete da?*

*Agur eta  
gero arte*

JOSEBA MIRENA BILBAO

lloxtuak albanean ipintea ba gaitz egiten jakon. Alan eta guzti ere bere burutxoa oso argi euki eban azken gabeian izan ezik: zeozer esan gura eban, baiña ez geuntson ulertzen.

«Egun batzuk ariñago, Hospitalean, berba pozgarri onek esan zituan: «Amatxu, maite nozu? Nik maite zaitut». Ostera bere au: «Jaungoikoak maite nau... Agur! Agur!» Bere arrebari ere deitu eutsan: «Miren!». «Josu», gero. «Aita», bere aurrean egoan jesuitari, «Aita Garate». Gero, argitu zanean, esan eustan: «Amatxu, amesetan legez naz, eriotzan nagoalata». Makaltxu egoan legez etxeratu egin genduan, bertan il egingo ete zan bildurrez; oxijenu ta sueruaz, amaika-amabi egun bizi zan gure ondoan.

Lur-emote egunean ainbeste ezagun gelditu jakuzan deitu barik. Ni poztuko nintzan zu bere illetan ikusteaz beste sei apaiz, senide ta lagun ondoan. Oso despedida pozgarria egin jakon, berak merezidu eban legez. Agur, Josebatxu, zerurarte! Bere utsuna

neurri bakoa ez da iñoiz beteko. Geure etxeko poza izan da, bera etxeko kanariotxo; naita jakin Jaunak beretzako gura izan dauala, bere gauza guztiak gogoratuz negar ta negar besterik ez dot egiten. Gogoratu zaitez zeure otoitzetan. Miren Artetxe, ama».

Aspaldian, neure paper ugari artean erdi galduta euki dodanarren, ez neuke gura olakorik, eta, gizaldiak zear, irarki biziz josirik liburuetan geratu daiten, ementxe aldatuak ipiñi gura izan dot, bizien pozgarri ta illaren oroigarri. Misterioz josirik gatoz mundura; geroak iragarriko barru orren mamiña. Joseba'ren bizitza, laburlaburra izan zan, amazazpi urtekoa. Epe motz orrek, baiña, ekarri eban bere frutua; atzean itxi euskun zeozer, au da, bere olerki idatziak, polito biribilduak. Ikusteak, gura izateak eta ebar zerbait adierazo nai dabe; egintza bat dozu olerki idaztea, eta egintza orren frutua or geratzen jatzu dardarka, ezilkor biurtua; or egillearen zati bat, goizintza lora gaiñean lez dizdizka. Joseba'ren olerkietan be bere zerbait daukagu: aren arima samur onaren arnasa, maitasuna, dardara...

*Olerkari.*—Ikasle ikastuna zan Joseba; euskal ikasle ain zuzen. Umetan Bilbao'n Elkano kalean, R. M. Azkue Ikastolan ikasi eban; gero Gran Via'n jarraituz. Sei urteko zala, Gorlitz'en emon zituan sei urte, jaiotzetikoa eban gexotik zerbait obetuko zalekoan. Baita obra egin be. Eta 1973-74 ikasteroa Lauro'n asi ta osotu eban, E. G. B.'ko 8'garren urtea amaitu arte. Amar urteko, ezin ibillirik gelditu zan oso-osoan. Ez eban alan be bere umore ona murriztu, ezta ikasteko gogoia be. Argia zan buruz, eta gexoaldian irakurten eta idazten aldi erre oi euskun.

Bakotzak doguz geure zaletasunak. Joseba'ri eder jakon olerkia. Emen Zornotzan'n ainbat urtetan ospatu izan dogu Olerki-Eguna 15 urtetik beerako neska-mutikoentzat; gure olerkari txikiaren lantxoak be agertzen ziran pitean bein, baita saritxoak irabazi bere. Gexorik eta sari-irabazteak emondako pozaz, ekin eutsan bertso-lanak biribiltzen, eta egun baten, onako kuadernu txiki bat bialdu eustan olerkitxo beteta; 26 dira guztira, laburrak eta zentzunez osotuek. «Nire Olerkiak» dau titulua, Bilbao Artetxe'tar Joseba'k egiñak.

Ona olerkion tituluak: 1) *Gabonak*; 2) *Ollartxoa*; 3) *Seaskan*; 4) *Bakartadea*; 5) *Itxas-argia*; 6) *Arrigorriaga*; 7) *Zer dan-gogoa*; 8) *Argi bat amatatzen*; 9) *Askatasuna, eskubide bat*; 10) *Gure kaleetan odola*; 11) *Itxasoan ekaitza*; 12) *Aurreskua entzutean*; 13) *Gau illuna*; 14) *Izar argitsua, Jaungoikoaren aunditasuna agertzen*; 15) *Itauna airean*; 16) *Erri bat gera*; 17) *Dirua eta bere ondorenak*; 18) *Euskaldunen nortasuna*; 19) *Burgos'ko prozesua*; 20) *Egi mingoitza*; 21) *Askatasunaren bidea galeraz-*

*ten*; 22) *Egiatzko zoriona*; 23) *Iñoren laguntza barik*; 24) *Suarez Bilbo'n*; 25) *Aberri Eguna-80*; 26) *Ereindako aziak fruturik emomgo ete?*

Naiz eundaka itaun egin, naiz eundaka erantzun emon, olerkia, egiazko olerki jatorra beti dozu au: pentsamentu sakon bat, dotore adierazoa; biozkada samur bat, arin ta gozo azaldua. Onexek labur ta txairo alkartuok dira Poesi-antoloji guztietan, dala Europa'n eta dala Asia'n, beti eder ta kilikagarri agertzen jakuzanak. Arimaren zauskada da olerkia, eta arimeak taupada txikitan agertu daroa bere barrua. Olerki luzerik ez jaku gaur atsegin; azkar bizi garean ezker, lan sakon ariñak asetzen gaitue.

Olaxe doguz Joseba'ren oler-lanak; gitxi besterik ez daukaz ogei lerrotik gorakoak. Orrez gaiñera, benetako olerkariak gaurko kezka urduri bearra dau. Joseba'k, irugarrenez esan, gexorik egoala bakartede ebesten dausku, itxas-argia, Arrigorriaga, kaleko odola, dirua, Burgos'ko auzia, Suarez, askatasunaren istillua, Aberri-Eguna... Zezatasun eta zertzelada guztiokaz konturatzen jaku, ogean zetzala be.

Erlauntzatik arako ezta lez, zuk be pizkat txastatu daizun, ona emen, «Aberri Eguna-80» deritxonaren aapaldiok:

*Gaur goizean jaikitzean*  
kaleak utsik ikusi dodaz,  
eta pena bat sentidu dot  
biotzean.

Aberria  
tristetu da,  
ezin izan dogu  
ospatu jaialdia.

Euskalerrian  
dogun giroagaitik  
ezin izan dogu  
ondo ospatu Aberri Egunik.

Datorren urtean  
Aberri Eguna  
izango da,  
benetan!

Oian, zirkiñik egin ezinda. Gazte, amabost-ama sei urte. Pazientzi aundiz Aberri Eguna nai dau aundikiro ospatu. Kaleko zarata, auzi ta izubarriakaz konturatzen da olerkari txikia.

Miñak ez dau ikaratzen. Bakotzak bera zeregiña dabe etxekoak, ikasi, erakutsi, lan egin... eta ezin naita be momentu guztietan bere oe-buruan iñor euki. Pena emoten dautso onek. Ez dau alan be garrasirik ateraten: begiak goi, Jaunaren naia egitea jako atsegiñen: «or zear ibilli aal izango banintz —diño—, eta miñik ez baneu, orain baiño zoriontsuago nintzateke; baiña bizitzari ezin dautsogu lepoa emon; ezin dogu aldatu, bizitza aldat-eko aalmena ba geunko, gizonok ez genduan oraindik egiazko zoriona eukiko».

Era onetan dozuz bilbotar olerkari gaztetxoaren lanak. Irakolako letraz jaztea merezi eben, eta orixegaitik, damotzuet emen euren barri. Badira norbaitzuk danakaz liburu txiki bat osotu guraz dabiltzanak. Bitartean begoz, ZER'en, nire lerro oneik.

AITA ONAINDIA

# EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA

## COSTA RICA

Costa Rica; «Izpazter Aberatsa»! Egoki ipiñitako izena. Ez noski lurrez eta lurpez Iber-Amerika'ko beste laterriak baiño aberatsagoa dalako, dauzan aberastasuk laterri aiek baiño obeto gizar-tean banatuak dauzkalako baizik. Orregaitik, Izpazter Aberatsa, beste aiek danak baiño paketsuagoa da, yakitez eta gizarte-bidea aurreratuagoa, eta politikagintzan garbiagoa.

Arrazoi askoren ondorio da Costa Rica'ren gurentasun eri. Ona emen arrazoi oietako batzuek.

—Españiarrak izpazter Aberatsa iritxi ziranean oso inditar gutxu bizi zan an. Eta bizi ziranak izugarri borrokari gogorrek ziran. Orregaitik, espāñiarrek ez zuten an, Ameriketako beste bazterretan bezala, inditarren lanetik bizitzetik izan. Espāñiarrek berak asi bear izan zuten an lanean: nekazaritzan-eta, aberezaintzan-eta...

—Ameriketara joaten ziran espāñiarrek ordea, «conquistadores» esan oi zaien lu ebasle aiek, oso langille makurrak izan oi ziran. Lur-irabaztera joaten ziran ara; ez, lan egitera. Ez zara, beraz, arrituko, ain izen ederreko Izpazter Aberats artara oso jende gutxi joan zala esaten ba'dausut; ia iñor ez!

XVIII mendearen erdian, Izpazter Aberatsak ez ebazan, guztira, 9.349 biztanle besterik.

—Bañan jende pittin ura jende langillea zan, langillea ez balitz ez

bait zan naitanaiez lan eginbearra zegoan lurralde artara joango. Eta lurra oparoa eta emankorra bait da an berez, lan egiñaz aisa aurkitu eben, Izpazter Aberatsa joan ziran jende aiek, estutasunik gabe ondo bizitzeko era bikaiña.

Euskalerritik ez zan jende aundirik joan bazter artara. Ez beintzat Ameritako beste lurrakdeetara bezain ugari. Ala ta guztiz, ez zaie lurralde aiei ere euskal-kutsurik peitu edo faltatu. Ikus: Esan dogun lez, oso urria izan zan gizatedia izpazter Aberatsean, Espāñi'ren mendeen egon zan bitartean. Emertzotzigarren mendera arte ez ziran an bi uri besterik. Aietako bat ordea euskaldun batek eraikia eta Costa Rica'k, askatasuna lertu eban ezkerre, eusko jatorriko lendakariak; eta izen aundikoak!: Eskibel Ibarra, Jz. Oremano (iru bider), Ulate, eta Etxandi.

—Izpazter Aberatsak ez dau gudarozterik! Eta ori laterri zorionsu arek aberats izateko arrazoirik aundiena, erri-ondatzaille izugarriak bait dira lurralde aietan gudarozteak. Eta non ez, gaurko gudaroztetzar auek?

Ez da beti gudarozterik gabe bizi Izpazter Aberatsa. Izan dau gudaroztea, izan dauz gudari-buruzagiak eta beste tokietakoak bezain borrokariak eta pake-austalleak. Baiña azkenean, militar aien iraultzetaz aspertu zan Errepublikak, eta 1949'ko Oñarri-legearen bidez, Ulate lendakari zala, gudaroztea ezereztu zuan!, eta aurre-

rantzean gudarozterik izatea debekatu!

Orain, alboko Nikaragua'n sortu yakozan arazo iraultzakoen erruz, arrisku aundian dago Izpazter Aberats. Oker aundia egingo leuke auzoko oietan sartuko balitz. Aspaldi ontan euskaldunok egin oi dogun okerra.

Joan dan mende guztian auzoko arazoetan. Espāñi'ko arozotan, muturra sartzen ibilli gintzazan euskaldunok. Zer ajola gure Espāñi'n Elisabete II'a edo Karla V'a errege izan? Zer ajola Euskal-erriari Espāñi'ko liberalismua absolutismuagaitik? Ala ta guztiz millaka eta millaka euskaldun il ziran karlatarren bi guduetan Espāñi'renak ziran ixkamill oien erruz. Eta zer irabazi zuan Euzkadi'k? Askatasuna galtzea!

Gaur ere atzerriko arazoetan Euzkadi sartu naiean dabilta gure komunistak. Ala dabil ETA - HB - EE izkien bidez ezagutzen dogun muntzo iraultzalari ori. Komunismua ezarria dagoan errialdeetan iñork gura ez daun komunismo ori ezarri nai dauskue emen guri!!!

Joan dan mendeko liberalismua eta absolutismua ez ziran arazo euskaldunak. Ez ziran emengo landareak. Atzerriarrak ziran. Era berean, komunismua ere atzerriarra da. Ez da euzkotarren arazoa. Ez da emengo landarea. Munduan iñork nai ez daun landarea da gaiñera!

LATIEGI'TAR BIXENTE



# FATIMA'ko

## AMA

(Aurtxoentzat antzekitxo) (Bizkaieraz).

(Antzetzlariak: Edeslaria, Ama Birjiña, Luzia, Frantzisko eta Kazinta. Baita abeslariak nai ba'da).

\* \* \*

Edeslariak: Jesus jaio zanetik milla, bederatzireun eta amazpigarren urtea zan... Udabarri bikaiña... Mendi ta zelaiak lorez apaindurik egozan... Txoriak zugatz adarretan kabi-giñan, kantari...

Lore-illa izan arren, Europa'ko amak negarrez egozan, millaka ta millaka gudari gazte gerran ilten ziralako. Mendietan kañoi-otsa entzuten zan Frantzia'n, Errusi'an eta beste guda oiñetan... Odola, gorrotoa eta eriotza ludi zabalean nagusi...

Portugal'eko Fatima erritxoan iru artzain txiki bizi ziran:

(Abeslariak «agoa-itxita» letra barik Fatima'ko abestia kantatu leike bitartean).

Frantzisko, bederatzi urtekoa. (Frantzisko agertuko da artzain jantzita).

Jazinta, Frantzisko'ren arreba, zazpi urtekoa. (Jazinta agertuko da).

Eta Luzia, amaika urtekoa, neskato zintzo ta esanekoa, Frantzisko eta Jazinta'ren lengusiña.

Iru artzain oneik lagun kutunak ziran. Bata beste barik ezin bizi.

Lore-illa zan... Mayatzak amairu... Iru artzaintxoak, domeka zanez, goizeko meza entzun, eta mendira joan ziran ardiekaz, pozik eta kantari...

Bazkal-ostean, mendian olgetan asi ziran, ardiak bedar gozoa jaten eben bitartean...

(Irurak olgetan asiko dira euren artean, baiña berba egin barik. ) (Olgetan dabizela Tximista lango argi bizi bat ikusiko da, eta umeak bildurtuta olgetari itxiko dautsoe).

*Jazinta.*—(Bildurtuta Luzia'gana joango da). Ene, Luzia!!!!; Zer izan da argi bizi au? Luzia, ni bildur naz, goazen arin etxera...

*Frantzisko.*—Bildurti ori, alako ori. Tximista bat izan da ta besterik ez.

—*Luzia.*—Bada ezpada be, ardiak artuta, goazen etxera. Zerua garbi egon arren, mendi ostean trumoi otsa da, ta laster asiko da euri zaparradea...

(Ardiak batzen lez asiko dira).

(Gerotxoago argi biziago bat ikusiko da, eta zugatz txiki baten gaiñean Ama Birjiña azalduko da, zuriz jantzita, errosarioak eskuetan).

(Iru artzaintxoak ikaratuta belaunikatuko dira, Ama Birkiñari begira-begira).

*Ama Birjiña.*—Ez bildurtu, umetxuok, nik ez dautzuet kalterik egingo-ta.

(Abeslariak abestuko dabe:

MAYATZAK AMAIRU; KOBÁ DE IRIA,  
AN EGERTU YAKU; ANDRA MARIA.  
AGUR; AGUR; AGUR MARIA,  
AGUR, AGUR, SORTZEZ GARBIA.

*Luzia.*—Nongoa, zara, Andrea?

*Maria.*—Ni zerukoa. (Zeruruntz eskuak jasota).

*Luzia.*—Zu zerutik ba'zatoz, esaidazu: ni zerura joango ete naz?

*Maria.*—Bai, zu zerura etorriko zara.

*Luzia.*—Eta Jazinta, nire lengusin maitea be bai?

*Maria.*—Baita, Jazinta be bai.

*Luzia.*—Eta Frantzisko?

*Maria.*—Bai, Frantzisko be bai, baiña lenago errosario asko errezatu bearko dauz.

*Luzia.*—Eta, andra, zer gura dozu guk egitea?

*Maria.*—Pekatarriak bide onera etorri eta betiko sugarretan galdu ez daitezán, penitentziak egin bear dazuez. Gura dozuez egin?

*Irurak batera.*—Bai, andre!!!

*Maria.*—Asko sufridu bearko dozue, baiña Jaungoikoaren graziak indarra emongo dautzue.

(Maria'k umeengana eskuak zabalduaz esango dau). Mundura bakea etorri daiten, eta gerra gaizto au amaitu daiten, egunero errosario santua errezau egizue.

## ĀNTZERĀIA

*Irurak Batera.*—Bai, andrea, egingo dogu...

*Luzia.*—Eta zer geiago gura dozu guk egitea?

*Maria.*—Sei illabetetan, amairugarren egunetan, leku onetara bertora etorri zaitez. Geroago esango dautzuet zer gura dodan.

(Au esanik estaldu egingo da abeslariak abesten daben bitartean).

AGUR, AGUR, AGUR, MARIA,  
AGUR, AGUR, SORTZEZ GARBIA.

(Artzaintxoak une baten belauniko jarraituta, gero sutunduko dira).

*Jazinta.*—(Zoratuta lez). Baiña, ze andre ederra guk ikusi doguna!!!!... Baiña, zein ederra... zein ederra... Eguzkia bera baiño argiagoa eta ederragoa!!!!... Zein polita eta zein maitagarria!!!

*Luzia.*—Penitentziak egiteko esan dausku...

*Jazinta.*—Eta zer dira penitentziak?

*Luzia.*—Kostatzen yakun zerbait Jaungoikoagaitik egitea.

*Jazinta.*—Baiña, zer egin geinke?

*Luzia.*—Esate baterako: bazkaltzeko ekarri dogun ogia eta gaztaia ardiei emon eta guk basoko ezkur garratzak jan. Ondo deritzazue?

*Jazinta eta Franzisko'k.*—Bai, pekatarien alde egingo dogu.

*Luzia.*—Orain, goazen etxera. Baiña begira, ez iñortxori be esan zer ikusi dogun. Bestela ez dauskue siñistuko, eta danen barregarri izango gara.

*Jazinta.*—Bai, ixilik egongo naz.

*Frantzisko.*—Nik be ez dausat iñori be esango.

*Luzia.*—Eta etxerako bidean errosario santua esan daigun, Ama Birjiñak agindu dauskun legez.

*Frantzisko.*—Nik milla errosario erresatuko dodaz, zerura joan naiten.

*Luzia.*—(Irurak Belaunikaturik). Andra Maria, pekatariak zeruratu egizuz, mundu zabaleko gerra zital au amaitu dedilla, eta danok zerura zugaz eroan gaizuz...

AMAIA.

## AMAREN EGUNEAN

*Amatxo maite maite  
zelan zu gaixotu?  
zugaz bizi nai dot nik  
arinka osatu.*

*Zu zara ama maite  
nire eguzkia,  
ilten bazara barriz  
galdu dot argia.  
Amatxo niretzako  
zara maitasuna,  
zugaz bakarrik daukat  
egiz zoriona.*

*Zure begiak ama,  
eder ederrenak  
bertan argi eiten dau  
zeru eguzkiak.*

*Zure ezpanak ama,  
bai gorri gorriak,  
bertatik urteten dau  
gozo dan eztiak.*

*Zuk dozuz eskutxoak  
edur zurizkoak  
euren igurtziagaz  
zoratuz biotzak.*

*Umetxook orduan  
dakigu munduan  
amatxoren maitasun  
noraiñokoa dan.*

*Indar gutxi daukagu  
bear laguntasun,  
amatxoren biotza  
dogula guk lagun.  
Ama barik umeok  
zer egingo geunke?  
negar ta tamaltsun  
iñundik ez bake.  
Jaunaren jakituri  
amai bagakoa,  
amaren maitetasun  
Ak egindakoa.  
Munduan atsekabe  
samintasun asko  
gure gorde lekua  
amatxogan dago.  
Eskerrak Goiko Jauna  
Zure sarikgaitik  
zuk emondako sari  
ama maitegaitik.  
Zure maitasunaren  
antz antzerakoa  
nire ama maiteren  
biotz barrukoa.  
Ume zurtz gaixoaren  
zoririk txarrena txikitian galdutea  
amen maitasuna.*

GALLASTEGIK

# ESKU - IDAZKIAK

## XX GORAPEN - ABESTIA

<sup>3</sup> Eskerrak emoten dautsudaz, ene Jaungoikoa,  
zure izaki gaiso onetan,  
buztiñezko gizonkil zirtzil onetan!,  
miragarriak egin dozuzalako.  
Aregan zeure besoaren aal-izatea egertzen dozu,  
geiago ta geiago beti.

<sup>4</sup> Nor naz ni zure ezkutua iragarten asi zakidazan?

Zeure egintzak ulertzea emon daustazu.

<sup>5</sup> Nire agoan gorapenak jarten dozuz,  
nire miiñean zeure ezpanetako gorespenak.  
Pozez abestu nai dot zure aal-izatea,  
zure errukia egun guztian ausnartzea.

<sup>6</sup> Zeure izena bedeinkatuko dot,  
zeure aundi-izateak azalduko dautsedaz Adan'en semeai.

<sup>7</sup> Nire arimeak zeure ontasun ugaria atsegin dau.  
Nik ba-dakit zure agoak beti berba bera diñoana.  
Zure eskuak zuzentasun bera [egiten dau]

<sup>8</sup> eta zure burutapena ezagutzen dan guztira [zabaltzen da] Zure sendotasunean batzen da dan guztiaren indarra.

Zure aintzak zeure sumiñean egiten dau dizdiz,  
zigorrek diran zure auzietan,

<sup>9</sup> [baita] zeure ontasunean be.  
zure parkatze ugarietan.

Zure errukia zeure maitasunaren seme guztienzat  
[,||]. Orregaitik irakasten dautsezuz zure ezkutua,  
<sup>10</sup> orrexegaitik egiten dozuz jakintsu sure asmo  
miragarrietan.

Zure aintza illundu ez daiten,  
garbitu egiten dozu gizona beronen agindu-austea-kaitik.

Santutu daiten,

<sup>11</sup> kendu egiten dozu aregandik iguingarri dan guztia.

Edozein galdukeri, edozein egitada errudun,  
zintzokakaz alkartu daiten

<sup>12</sup> eta santuen zori berbera izan dagian.

Jaso egiten dozu autsetik artxo ilkorra,  
onaren eta txarraren espirituaren arteko gorabee-rean sendotzen dozula.

Zeu ezagutzeko argitzen dozu,

<sup>13</sup> gudarozte betikoagaz alkartuta Zeugana eldu daiten,

beti barriztutako espiritu argituagaz (alkartuta),

<sup>14</sup> beti irauten dabenak, bazkunako gozotasunaz jakitun dagozanak.

## XXI DORAPEN - ABESTIA

<sup>15</sup> Eskerrak emoten dautsudas, ene Jainkoa,  
Goratu egiten zaitut, ene Arkaitz ori,  
zure jardun zoragarriagaitik.

<sup>16</sup> Izan be, zeure biziaren ezkutua  
ezaguerazo zeustan.

<sup>17</sup> Zeure miragarriak agertu daustazuz.

Ni begira nagokie,  
[atsegin dot] zure naierea.

<sup>18</sup> Ba-dakit zuzentasuna zeurea dana  
eta salbamena zeure biozperatasunean dagoana,  
[zure sumiñean] ondapena,  
zure errukia urritu bagarik.

<sup>19</sup> Nigandik dolu ta samintasun-iturria sortu zan.  
Ez yatan oiñazerik Parkatu.

<sup>20</sup> Oil, neugan ezagutu aal izan dot  
zenbat makurtzen dan gizona ilkortasunera,  
[autsetara], pekatutara, atsekabera,

<sup>21</sup> erruaren larritasunera.  
pentzakera au, zorrotz antzean,  
nigan azurretaraiño sartzen da.

Miñaren oiñazean artzen naz.

<sup>22</sup> Doluzko erosta-zitareak joten diardu,

illeta-abestiak, samintasun-erostak,  
gaiztakeria ezereztu arte,  
edozein zauri ta geiso garbitu arte.

<sup>23</sup> Orduan, poz-zitarazko soiñua asiko dot,  
atsegin-zitarea, gorapenari dagokion txilibitua.

<sup>24</sup> Nok esan aal izango dauz  
izaki guztien artean isuritako zure miragarriak [...?]

<sup>25</sup> Ago guztiak betiko goratu zagiezala,  
bedeinkatu zagiezala zeure doaiakitik  
guztiak batera soiñu berean.

<sup>26</sup> Poz-bitsetan soillik egon zaitezala,  
ez da geiago izango negarrik, ez negar-malkorik.  
Amaia gaiztakeriari. Zure egiak dizdiz egingo dau.

<sup>27</sup> Aintza azkenbagearentzat bakea betikoa izango da.

<sup>28</sup> Bedeinkatua Zeu, zure gozotasun ugaria zeazteko

zure morroi oni adimena, ezeguerea ta zure miragarriak bereiztea  
emoten dautsazuz-ta.

# ETXENIKE JAUNARI BEGIRUMEZ

Oyartzun'en izan zifian lotazilean, Pedro Migel, an Euskara-zaintzak Oñatibia'tar Yon izkuntzalariari eskeini eutsan omenaldian. Eskerrikasko etorri zifialako.

«Euskaldunok batu egin bear gintzazala» esan zenduan billera ospetsu artan. Eta egia esan zenduan. Eskerrikasko eman zeuskun aolku eder orren truke.

Baiña nik, Pedro Miguel, begirune osoz eta maitasunik aundienarekin, galderatxo batzuk egin nai dautsudaz, batasun ori dala-ta.

—Pedro Miguel: ¿Ez al gintzazan danok Euzkadi'n batuak eta alkartuak, eusko iraultzalari marxizale ertzakoi edo extremistek «el batua» sortu ebenean? Nork urratu dau, ortaz, euskaldunen batasuna? «El batua»'k!!! Altaguztiz, Pedro Migel, batasunaz mintzatzen zara bai, baiñan «el batua» batasun-urrazaillea babesten dozu.

—Euskaldunon batasuna, Arana Goiri'en idazkeran eta Azkue'ren Euskeran zegoan oñarritua. Azkue ordea abadea zan eta Sabin kristau zintzoa. Orregaitik: kristautasunari aurka ekiteko eta Euzkadi komunistaren izkuntza izateko asmatu eben ETA'tar iraultzalariak «el batua». Sabin komunistak izan balitz eta Azkue jan korik gabeko yakintsu oietako bat, gaur ez genduan emen «el batua»'rik izango. Zuk ordea, Pedro Migel, naiz sabindar zarala aitortu, Sabin'eri aurka egiteko asmatua izan zan «el batua» babesten dozu.

—Batasuna izen ederra da, baiña arriskugarria Fatxista guztiek

maite daben itza. Lendabizi, gogorkeriaren bitartez, batasuna urratzen dabe. Gero, burua sartzen dabenean eta garaille irtetzen diranean, batas una eskatzen dabe. Baiña berak gura daben batasuna bakarrik. Ori, Pedro Migel, iraultzalari eta fatxista guztien jokaera da. Guk ordea, nere Pedro Migel maitea, erriak nai daun batasuna gura dogu.

—Ta euskaldun erriak, Pedro Migel, zure ministeritzak berak egindako ikerketa edo enkuesta batean, ez duala «el batuarik» guta, esan dau. Bizkaiera eta Gipuzkera gura daula. Eundik ia-ia irurogeita amabostek erantzun dabe ori. ¡% 75!

—Eundik berrogeiek bakarrik erantzun baeben ere, begirune aundia zor yakon gutxiengo edo minori bat izango litzake % 40 ori. Eta, % 51 izan ba'ziran orrela erantzundakoak, geingo orokorra, «mayoria absoluta» izago ziran. % 75, Pedro Migel, ia-ia Euskaldun-erri osoa da! Eta zuk, demokrazi-zale zalarik, nola jarduten dozu euskaldun guztien naimenaren aurka «el batua» jaurlaritzatik babesten?, «el batua» gura ez daben euskaldun oiei. «El batua» indarrez sartzen?

—Eskierki, seguruaski, alkarrekin itxura pixka bat badabeta, baileteke gipuzkera'k «el batua» suntsitzea. Bizkaiera da salbamenik gabe, «el batua»'ren ankapean ilko, ezereztuko, eta zearo galduko dana. Ni giputza naiz, Pedro Migel, baña gipuzkera aiña maite dot nik bizkaiera. Gipuzkera bezain neretzat daukat bizkaiera,

biak bait dira, era berdiñ-berdiñean, nere euskera. Eta orrelaxe pentsatzen dogu euskera maite dogun auskaldun guztiok. ¿Nola «eusko jaurlaritza» esan leikio bere buruari, bizkaiera ondatzen eta birrintzen diardun jaurlaritza batek?

—Gipuzkoa'n jende geiago irten zan «el batua»'ren aurka Bizkai'n baiño, eta orrek arritu zinduezan, ta ez gutxi gañera, eusko jaurlaritzako jaunek. Baña Bizkai'n ere ia % 75 bizkaieraren alde irten ziran. Eta zuk..., «el batua»'ren etsai diran bizkaitar oiei «el batua»'ren ortografia. H'a ta guzti, artuarazi nai dautsezu, ortarako jarlaritzakoa izateak ematen dautsun almen, eta dirua, erabilliaz. «Ez dozue nere dirurik artuko, zuen bizkaieran «el batua»'ren. H'a artzen ez ba'dozue. edo H'a artu edo go-seak il! ETA'k jokatzen dau orrela, Pedro Migel: «Edo dirua edo bizia!». «Emaidazu dirua eta emango dautsut bizia». «Emaidazue H'a eta emango dautsuet dirua». Orrek, barkatu naizu, Pedro Migel, ez zaitut iraindu nai-ta..., orrek, erderaz, eso izen zakarra dau «chantaje». Euskeraz ez dau izenik. Euskaldunok ETA sortu zan arte ez bait genduan errelakorik egiten.

—Badakit, Ministro Jauna, asmo onez zabiltzala. Ez eizu arren, nere itzetan ere, asmo okerrik ikusi. Asmorik onenarekin esaten dautsut, zure jokaera orrek euskera iltzen ari zarala; bizkaitarren diruarekin bizkaiera iltzen ari zarala.

LATIEGI'TAR BIXENTE



# BIZKAI'ko BASELIZAK

(DEIA egunkaritik atarako atala. — Bidarrai barriemailleak idatzitako laguntasunaz, Osotasuna gaiñera ezarrita).

**SANTUTEGIAK:** Begoñako Ama birjiñarena, Arantzazukoa, Estibaliz, Urkiolakoa etab. ...**BASELIZAK:** Gaztelugatxeko Juan donerena, Ander Donekoa Mungialdean, Martin, Katalina, Magdalena, etab. baso aldean ipiñita dagoz biztanle gitxi agertzen diran inguruetan, eta elizkizunik ospatze barik urte aldi geienez.

Urtero bein edo lantzean bein Kristoren, Ama Birjiñaren, santu edo santaren baten izenean eta aintzatasunean ospatzen dira elizkizunak eta erromeria baita bere.

\* \* \*

...Leengo batean, Morgako sei baselizatik 3 bein betirako galduko ete diran egiten geutson... Juan Donekoa zan bat, laster lurrera datorrela esaten genuen... Jandoniz izenekoa (geure artean). Morgako lurralde baten barrenean dago baseliza au, Fikako, Fruizko eta Morgako lurraldeak eta ikusten diran inguruan. Bereziz, Meaka auzotegikoa da... 1950-60 arte Jandonizko baselizak ospe andikoak izan ziran; urte orretatik gorantz industrigintza oso osoan sartzen asi zan Mungi aldean eta geroago ta geiago otzitzen joan da.

Orain dala amar amaika azkenengo urteetan mezea Juan Doneko baselizan esango zan.

\* \* \*

Batzuetan baselizak errialdetik urbil dagoz; auzotegiko sendiak erreztasun andiaz biltzen dira. Urbil edo asao egon arren eskontzak, esate baterako, baselizetan ospatzen dira, gomutagarritzko toki bakesu onetan.

Baselirzaren zaindaria edo arduradunak zaintzen dau barrutik eta albotik, garbitzen ditu alderdiak, ataria, gilzak gorde idegi edo itxiteko atea jo egiten dau kanpaia auzotegiko biztanleei dei egiteko.

**GAZTELUGATXE...**, Bakio eta Matxitxako lurmuturraren artean Juan Bataiatzalle Doneren jaia ospatzen da urtero itzas-ondorenaren toki ederrean, Bagillaren ogei eta lauganen egunean.

Udatiar asko joaten da udaldian batez ere ikustaldi bat egitera baseliza onetera, bide alde batez, bertako itxasoa, aize leuna, mendiak Jatabe eta Sollube mendieta-ko ikuste ederrak begitzen ditue...

\* \* \*

Zerua eta lurra, solo orlegiak, etxe zuriak eguzki argitsuko egun baten, laño eta edoi barik eguraldi eder baten ikusgarria izaten da.

...Itzas ertzeko bidea urbil dago; berebillaz bermeorantz, Bakiorantz, Mungirantz egiteko erreztasuna badaukazu. Egundozgarri oso bat igaro ostean etxeratu zaitez ordu egokian.

Urkiolako Antonio Deunaren Santutegia. — Bagillak 13.— Egutegira begiraturik erreztasunez konturatu gara zein egun dan. Antonio Dauna, Bizkaian Urkiolako mendi tontorrean ezarrita dago, ekuspegi ederrean. Baseliza edo Santutegi ospetsu bat; Arabaren ondoan: Aramaionatik..., Gipuzkoatik urre samar Mondragonekoentzat... Mendi Orren Gaiñean ezarri zuen euskaldun siñistetsuak Antonio Doneren Santutegia.

Goizeti etxetik urtenez eta oiñez ur bizi diranak, eta kotxez besteak santutegira zuzentzen dira. Mendi tontorrerantz jente pilloak gorantza egiten dau. Ezagunak, lengusuak, auzokoak bide er-

dian aurkitzen direnean agurtu eta «gero arte» ezanik aldendu dira, edo bata besteekaz zuzentzen dira baselizarantz... Goizean goizeti azaltzen da argiz eta gizadiz beterik, ta eliz ataria liburu, bederatzi urren, errosario, kutun gurutze ta Antonio Done irudiz beterik. Batzuek elizatik urten orduko, beste batzuek sartzen dira. Santutegi alboan zuaitez ederrak aurkitzen dira batez ere toki egokienak aukeratzeko egun osoan egotalditxo bat egiteko, janari eta edari artzeko edo ta baskalzeko bear bada.

## MUNGIKO ESKUALDEAN

Ikus, urrengo orr. Aintxinatik badira alderdi onetan auzotegi asko. Iturribaltza, Birle edo Billela, Atxuri, Elordi, Larrauri, Belako, Markaida... eta.

Auzotegi bakoitzean aurkitzen da baselizararen bat... Esate baterako edo adibidez, Billelako auzotegian Ander Doneren izena gogoratzen da; Ez daukat agiririk edo edesti-paperik, noiz, non, nondik eta beste itaun askori erantzuna emoteko.

Gondramendiko magalean, zuaitez talde baten ondoan, Jatabe eta Mungiko erri biren artean dago, Birleko auzotegian eta Laubide deituko toki basterrean.

Abustuko leen igandean ospatzen dira Kofradi jaiak.

Oraintsu, amar amabi urte dirala, baseliza barria eregita dago; Mungitik Jataberantz doa bide bat, baste bat Birleko Errotarantz eta mendirantz; orrela esaten jako laubide toki one tatik ogei ogei eta amar metro aldenduta, mendirantz, ikusten da Ander Deunaren baseliza. Antziñakoa, zarra ta txikiagoa, erdiz zulotuta eta apurtuta zegoan.

Bost edo sei egun aurretik Kofradiek baiño leen Mungi erriko

## ERRIA

taberbetan eta dendetan erakusten dira jai onetako egitasamuak.

Jaieguna eldurik auzotegiko gazte talde batek zuziri batzuk jaurtiten dabez Zuzirien argiaz eta zarateaz jentea itxartu egiten da; Kofradi Jaiak asi dira ta.

Geroago eta ordurik ordura, suziriren zarata entzuten da.

Goiz erdian amaika ta erdietan meza deuna emoten da. Kofradi eguna Abuztu lengo igandean izaten da, kristauan premiña betetzeko baselizara joanez betetzen da. Ordu erdi leen baselizako karpaiak iragarten dau mezearen ordua. Mungiko apaiz batek emoten dau urtero urtero. Meza ostean, barriz zuzirien zaratea entzuten da. Baselixaren ondoan edari otzak eta ardao saltzailleak ezarri

dabe euren tabernatxoa edo txosna.

Eguraldi ona edo berotsua bada, batez bere, edari zaleak urreratu egiten dira txikito batzuk artzeko.

Musikalariek euren soñuek jo egiñez mutil neska talde batzuek asten dira dantzan.

Asto probak, futbol, soka-tira eta ostantzeko jolasen txapelketak antolatzen dira. Azkenean txapeldaneu banatzen dautsez sariak... Arratsaldean Jaiak jarraitzen darte.

Zemendiak 30. — Ander Deunaren jai. Egun onetan, be meza santu bat emoten da baseliza onetan, santuaren izena aintzaltzeko eta auzotegiko premiñak bete dai-

tezan, eguraldi onak etor daitezcan, ildakoen betiko atsedena lorzeko...

Oarra. — Zeorzertzo aztu jat.—Eta kofradi Egunaren aurregunean Larunbata; asteko azken eguna. Orain egunetan ez da bear edo lan eguna. Illundian Arrautz opil Txapelketa egiten da. Ogei, ogei ta amar taldek parte artzen dabe: sendi taldeek, lagunak etab zutaldeko tresnakaz apainduten dabe euren arrautz opilla. Sua, kea, argia, eta naste andia ikusten da baselizaren ondoan. Bertan artzen da afal askaria ardao pizka batez lagunduta.

MADRID'EN  
(1982 - 7 - 19)  
BILBAO'TAR MARTIN  
(Lamennetarra)

## IRU IZKUNTZA TA ERDI

*Beti nabil ni amesetan  
gure erria gora naian,  
ele jakintza emon danai  
irakatsiaz umetatik.*

\* \* \*

*Iruizkuntza guk ingurun  
gaztelania be aldetik  
Prantses iskuntza goi aldetik  
euskera maite biotzean.*

\* \* \*

*Albo izkuntzak indartsuak  
gure euskera kikildurik*

*beste izkuntzak bultzakadaz  
itxas barrura bota nairik.*

\* \* \*

*Zergaitik gure agintarik  
ez dau egiten alegiñik  
gure umeak ikasteko  
irurak baten eskolatik.*

\* \* \*

*Umeak errez ikasten dau  
edozein ele aurtzaroan  
iru izkuntzok ikasirik  
jakitun etorkizunean.*

\* \* \*

*Euren euskera maiteena,  
jakingo dabez beste ele bi  
ez da izango olahorik  
geurek jakintsu beti bizi*

\* \* \*

*Astean beingoz ikastolan  
ingeles bere irakatsi  
gure umeak orrelaxe  
jakitun eta beti nausi.*

GALLASTEGIK

# ERITXI BATZUK

## BIZKAIERAREN ALDE (II)

«Bizkaitarra ba'zara ta Bizkaia'n bizi ba'zara, bizkaitarrakaz berba egin bearko dozu... Orregaitik BIZKAIERAZ ikasi ondo, ta ondoren, al ba'dozu, beste euskalki bat».  
(EUSKERAZALEAK Alkartearen Egutegitik)

«Ni Gipuzkoa'tik etorri nintzan Bizkai'ra, auzoko etxera. Eta norbait auzoko etxean sartzen danean, auzoko etxeko oitura, izkuntza ta gora-beerak maite-maite izan bearrean aurkitzen da. Ori da giza-legea. Zer egin eban Xabier Peña'k Tolosa'tik etorri zanean? Tolosa'ko euskera ederra irakatsi eban? Ez'Emengoa ikasi ta irakatsi eban. Gizon jator lez jokatu eban. Ori da giza-legea. Eta bide orretatik ibilli gura ez dauana, joan daitela bere etxera... Ori gauza erreza da».

JUAN BTA. FERNANDEZ SETIEN

\* \* \*

«BIZKAIERA eguneroko izketa dogun euskaldun geienok (zenbaketak edo "estadistikak" olan diño) eskubidea dogu gure euskalkiaz gauzak esan, adierazo ta idazteko. Au oiñarri lez, eskubide lez onartzen ez dauana zapaltzaillea da, besterik ez.

Ezin onartu ba, "el batua" zaleen erizpide jaunkerizale edo inperialistak».

JOAKIN DE PEDRO

\* \* \*

«Bizkai'ko Euskera BIZKAIERA bakar-bakarrik da. Beste izkerak ez dira gureak; izkera orreik itzita, gorde ta bizkortu dagigun bizkaitarrok, gure indar guztiekin, gure izkera bakarra dan BIZKAIERA».

BIZKAIERA, beste Euskalkiekin batera, Europa'ko ta agian mundu guztiko izkuntzarik zarrena da. Atzo goizean, gorrotozko giro makurrean Arana Goiri'tar Sabin'en aurka ekiteagaitik asmatu eben "el batua" mordoilloa gaitzetsita, gorde dagigun guk bizirik BIZKAIERA, geien itz egiten dan euskera... Erne ba... tu zutunik BIZKAITARRAK.

Eta gogoan izan beti BIZKAIERA ez dabela "el batua" zaleak ezertarako kontuan artu be, *Sabin'en izkuntza zalako*. Ez dago beste arrazoirik».

LATIEGI'TAR BIXENTE

\* \* \*

«EAJ'ek Bizkaia'n zelan jokatu?

Emen euskeraren garaipena gura dogu. Bide ta jarrera zabalak nai doguz. Erriak daukana artu ta alperriko burruka geiago ez bei iñork sortu. BIZKAIERAREN sustraia ta enborrari jaramon egin eta azaleko gauzak azaleko lez ikusi.

Politika jokoak politikan itzi, eta izkuntza-bideak eratu ta ugaritu, BIZKAIERA ikasteko ta irakasteko diru-laguntzak, txapelketak, sariketak eta gaiñerako lagungarriak bear doguz».

A. FERMIN IRAOLAGOITIA


(Aukeratzaille: Bilbao'tar Jon E.)

EUSKERAZALEAK

# VZER

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA



BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia